



NAFARROAN BESTE GASTU POLITIKA BATEN ALDE: AZPIEGITURA ERRALDOIEI STOP

Gure sektorean Nafarroako Gobernuaren gastuen orientazioak sortzen dizkigun kezka eta eraginak adierazteko probextu nahi ditugu lerro hauek, nekazari eta abeltzain gisa nola erasaten digun, baita hiritar bezala ere, beste guztiek bezalako eskubideekin. Landa-eremuan bizi garen hiritarrak gara eta arlo desberdinetan murrizketak pairatzen ditugu, esate baterako osasun arloan, heziketan edo jendarte politikan, beharbada hiri-populazioak pairatzen dituenak baino gehiago.

Gure erakundera igorritako 2014ko Aurrekontu Legearen Aurreproiektua ikuspuntu sektorialetik aztertuz gero, harriduraz ikusten dugu 19.250.000€-ko kontu-sail berri bat, Nafarroako Enpresa-Korporazio Publikoarendako (CPEN-endako) transferentzietara dagokiona, eta Nafarroako Ubidearen hedatzearen finantzaketara bideratuta dagoena. Gainera, aurreproiektu honetan badira beste kontu-sail batzuk, denak batuta 4.500.000€, CPEN-en enpresakideak direnendako, tartean INTIA eta TRACASA.

CPEN-endako kontu-saila kenduz gero, gastua 88.473.000 €-eko dela ziurta dezakegu, beraz, 2008tik gaurdainoko murrizketak % 70era ailegatzen dira.

Gertaera honek berez aurreproiektu honen arbuiatzea eragin du EHNE-aren aldetik CEE-ean, baina gure Erakundearendako benetan gogorra eta onartezina dena sektorerantz zuzendutako gastuaren orientazioa da: Nafarroako Ubidera bideratutako 33.333.997€. Porrot egin duen proiektu hondatzailearendako, 2014ko ekitaldiko nekazaritza-gastu osoaren % 31, alajaina! Ez du sortutako inongo itxaropenik bete: ez du nekazalgoan gazte gehiago hasterik ekarri, ez da agroindustria gehiago ezarri, ez du lur landuen mapak batere antzik izango zena ziotenarekin, alderantziz, lur azalera ureztagarri berriaren % 40an ez da urik erabiltzen eta lursailen %17an ez dute ezta ureztatze-azpiegitarik jarri ere egin.

Dagoeneko baieztatu daiteke Gobernuaren proiektu izarrak, Nafarroako Ubideak, proiektu honekin lerrokatuta ez dagon guztia irentsiko duela, gainontzeko eskualdeetako nekazaritza-jarduera erabat eragotziz. Bere buruaz beste egiten duen estrategia da Nafarroako Gobernuaren hautua, baita bere alde egiten dutenena eta proiektuaren bultzatzaileena ere, horrelako sektore estrategiko batentzat, bai ikuspuntu ekonomikotik zein jendarte, ingurumen, edo kohesio-elementu eta lurralde-egituratze bezala ere.

Horrela ikusten dugu apustu oker honi esker aipatutako helburu estrategikoak lortzeko funtsezkoak diren kontu-sail anitzen hustuketa nola ematen den: abeltzaintza iraukorrerako laguntzak nola galdu ditugun, CUMA-etarako direnak, ustiategiak eraberritzeko laguntzak nola murriztu ditugun, ekoizpen ekologikorako diren laguntzak nola deuseztu ditugun, estepetarako direnak ere, abelazkuntza-elkarteetarako laguntzak nola murriztu ditugun, batzorde arautzaileetarako direnak ere,... eta dena proiektu honekin aurrera egiteko, esneketariaren ipuina kontatzen diguten bitartean sektorea desegiteko.

Baina gutun hau bai nahi dugula baliatu gure kezka sakona adierazteko, aurreproiektu honen atzean ikustatzen denarengatik, bere mamiarengatik eta laborantza-sektoererako diseinatu duten etorkizunarengatik, ezjakintasunetik eta sektorearenak ez diren bestelako interes ekonomikoei men eginez eginak baitira. Gainerako Erakunde Sindikalei, sozialei, kolektiboiei, legebiltzar-taldeei... deia egin nahi diegu ez bakarrik proiektu hau laborantza-sektoererako negatiboa izango delako, baizik eta beste arlo batzuetara ere murrizketak ekarriko dituelako. EHNE-k Nafarroako Ubidearen hedapenaren berehalako geldiaraztea eskatzen du, horrela inflexio-puntua suposatuko duen Nafarroako nekazaritza-politikari buruzko eztabaida prozesu bat irekitzeko, Nafarroko ekoizpen arlo guztiaren eustea ahalbidetuko duena eta, aldi berean, ekonomikoki interesgarria, lurraldearen egituratzailea eta enplegu sortzailea izanen den sektorea izateko.

Nekazari gisa pertsonak behar ditugu, baina hiritar gisa ere, gastuaren joeran eta Nafarroako Gobernuaren lehentasunen joeran norabide aldaketa bat behar dugu: AHT, Los Arcos-eko Zirkuitua, Tuterako Ciudad Agroalimentaria, Navarra Arena,... epe luzera enplegu galera ekarriko duten proiektu hondatzaile gehiegi dira, beste politika ekintzaile eraginkorrak abiaraztea eragozten duten proiektuak denak, eta ondorioz gaur egun hezkuntza, osasungintza edo jendarte politiketan oinarritzko eskubide urritze handiaz ordaintzen ari gara.

EHNEk datorren abenduaren 21ean, 12:00etan autobus geltoki zaharretik abiatuko den manifestazio deialdia egiten du, Nafarroako Ubidearen geldiaraztea eskatzeko eta aldi berean Nafarroan gastuen lehentasunak zentzuz ezartzerako eskatzeko eta azpiegitura hauek dakarten diru xahuketaren kontra.

EHNEk zuen erakundearen atxikimendua eskatzen du mobilizazio honekin bat egiteko

Besterik gabe, jaso ezazu agur bat

Fermin Irigarai Gil.

EHNE Nafarroako Presidentea